

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresaren oinarri nagusietako bat gure bezeroekin harreman zuzen bat edukitzea da. Komunikazio-kanalak harreman bat sortzen dute, produktua bidaltzen eta jasotzen dituen artean. Hainbat adibide ditugu horri buruz (Telebista, irratia, internet, telefonoa...etab). Komunikazio kanala produktua zure bezeroei lehen aldiz ailegatzeko egiten da, horrela zure albiste bat ikusi edo entzun ondoren, beraien arreta jaso ahal dugulako eta horrela produktuak erosi ahal dizkigute.

Ezagutzera emateko eta marketing lanak egiteko teknologia berriak erabiltzea interesgarria dela uste dugu, ezin dugu ahaztu gaur egun komunikatzeko dugun tresnarik garrantzitsuenak direla eta beraz, gu ere horrelako sareak erabiltzea ez dugu baztertzen. Hauen artean; Instagram, Twitter, Facebook eta interneten sortutako webgunea erabiliko genituzke.

Eskola zentroekin eta irakasleekin harremana zuzenagoa izango dugu, beraiekin hitzordua jarriz eta gure berri eman ahal izateko. Bilera horretarako, hitz egingo dugunaz gain, gure inguruko informazioa ere helaraziko genien, horretarako triptikoak, power point presentazioak... erabiliz.

Irakasleekin harreman oso zuzena edukitzea nahi dugu,gehiengotan irakasleak beraien liburuak erabakitzen dituztelako orduan haiek gure plataforma erabiltzen badute orduan beraien ikasleak ere erabiliko dute. Beste batzuetan, zentroak liburu batzuk erabiltzeko behartzen ditu haien irakasleak orduan biekin harreman ona edukitzea nahi dugu.

Aldi berean, beste elkarte batzuekin aliantzak egitea espero dugunez, baliteke zenbait momentutan gure produktuak beraien bitartez ematea.

Hau da gure esku ditugun komunikazio kanal guztiak erabiliko ditugu,gure bezeroekin harreman gertua eta konstantea izateko. Hala ere, pertsona bakoitzarekin egokia den kanalak erabakiko dugu eta hortaz kanal hori aukeratuko dugu.